

Prentsa oharra

Nota de prensa



Hasierako onarpena eman zaio Loiolako Erriberetan 80 zuzkidura-apartamentu eraikitzeko Plan Bereziari

Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako beste gai batzuk: Patruila-autoak, Ondarretako kiosko-taberna, "Merkataritzan eta ostalaritzan ere euskaraz" programa

Tokiko Gobernu Batzarrak hasierako onarpena eman dio Loiolako Erriberak eremuko g.000.7 lurzatiaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziari. Plan hori Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren ekimenez idatzi da, auzoan gutxi 80 bat zuzkidura-bizitoki ezartzea ahalbidetzeko eta antolatzeke.

Eneko Goia alkateak azpimarratu duenez, "jarduera honek aukera emango du hiriko zuzkidura-bizitokien kopurua handitzeko, zailtasun gehien dituzten kolektiboek etxebizitza eskuratzea erraztuko dieten proiektuak garatzen jarraitzeko konpromisoa mantenduz".

Eraikin berriek zuzkidura-apartamentuak hartuko dituzte pertsona kalteberentzat edo etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dituztenentzat, hala nola gazteentzat edo adinekoentzat. Izan ere, Euskadiko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroak (Etxebide) 2023ko bigarren hiruhilekoan emandako datuen arabera, Donostian 8.839 pertsonak eskatzen dute alokairuko etxebizitza bat.

Horrela, Plan Berezi honen helburua da etxebizitza-premia horri 1.618m²-ko lurzati publiko batean erantzuna ematen laguntzea, lurzati horrek egokia egiten duten zenbait baldintza betetzen baititu:

- Irisgarritasun handia dauka eta hirigintza-oztoporik ez ditu.
- Garraio publikoko ibilbide aktiboetatik gertu dago.
- Ekipamendu komunitarioak eta lurzati libreak dituen hirigintza-eremu batean kokatua dago, etorkizunean tokiko sistemen sarea handitzeko aukera ematen.
- Urbanizazioa erabat gauzatuta dago.

Plan Bereziak gehienez ere hamahiru solairu aurreikusten ditu sestra gainean, beheko solairua barne. Eraikuntzaren altuera 41m-takoa izango da, eta haren gainetik instalazio eta komunikazio bertikaletako elementuak eta horiek estaltzeko eta akustikoki babesteko arkitektura-elementu arinak atera ahal izango dira. Gainera, sestra azpiko lau solairu aurreikusten dira gehienez ere, ekipamendu komunitarioetarako. Kasu honetan ere, gehienez lau solairu ezarri dira sestra azpian.

Patruila-autoak

Tokiko Gobernu Batzarrak Udaltzaingoarentzako lau patruila-auto Renting sistemaren bidez hornitzeko kontratazio-espeditentza onartu du, hasierako 4 urteetarako 302.400 euroko lizitaziorako oinarrizko aurrekontuarekin eta 4 urteko egikaritze-epearekin, urtebeteko luzapeneko aukerarekin.

Prensa oharra

Nota de prensa

Ondarretako kiosko-taberna

Tokiko Gobernu Batzarrak onartu du Orioko Barra SLri esleitzea Ondarretako hondartzan instalatu beharreko bi kiosko-tabernen ustiapena kudeatzeko zerbitzuen emakidaren kontratua, bi urteko egikaritze-epearekin (urtebeteko bi luzapen posible) eta honako baldintza hauekin:

- Tabernak maiatzetik urrira bitartean ustiatu ahal izango dira.
- Tabernak gutxienez ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean egon beharko dira irekita.
- Ordutegia 10:00etatik 22:00etara izango da.
- Ordutegia 00:00ak arte luzatuko da Aste Nagusian.

Emakidunak ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean ordaindu beharreko kanona 105.270 eurokoa da denboraldiko.

"Merkataritzan eta ostalaritzan ere euskaraz" egitasmoa

Tokiko Gobernu Batzarrak "Merkataritzan eta ostalaritzan ere euskaraz" egitasmoa antolatzea eta gauzatzea xede duen kontratazio espedientea onartu du, urteko 78.650 €-ko gehienezko aurrekontuarekin eta bi urteko hasierako indarraldiarekin, hiru urtetako luzapen aukerarekin.

Zerbitzua gauzatuko da kale mailako merkataritzako nahiz ostalaritzako establezimenduak eta bestelako zerbitzu-establezimendu txikiak bisitatuta eta Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak merkataritzarako eta ostalaritzarako Zerbitzuen Katalogoan jasotako laguntza eta zerbitzuen berri emanez establezimenduetako arduradun nahiz langileei.